



<b>Izenburua</b>	Familia bidezko euskararen jarraipena Oarsoaldean: arian ekin, ekinen ari
<b>Egilea</b>	Joxe Luix Agirretxe Mitxelena
<b>Data</b>	2009/03/11

# aurkibidea

---

1. Hausnarketa prozesua .....	3
2. Eskaintza berriak .....	5
3. Sentiberatzea eta komunikatzea .....	6
4. "Kuadrillategi" familia egitasmoan .....	9
5. Egun, zer? .....	10

Ingurune erdaldundu edo erdizka erdaldunduetako bikote misto kopuru handiak eta bikote horiek euren seme-alabei **euskara transmitituko ote zieten kezka** eragin zuen batik bat euskararen familia bidezko transmisioaren egoeraren inguruko gogoeta eta zurrumbiloa 80ko hamarkada bukaeran. Berehala lotu zitzaizkion hasierako kezka horri, guraso erdaldunak ere **“lehenbailehen” euskaldundu beharra** eta **familien hizkuntza ohituretan eragin beharra**. Oarsoaldeko udalak ere ez ziren kezka horretatik at geratu eta lehenengo mugimendu hari lotu zitzaizkion 1990ean.

## 1. Hausnarketa prozesua

---

1989-90 ikasturtetik zetorren “Transmisio kanpaina” izenez ezagutzen genuen kanpaina edo egitasmoak (Lezon, Pasai Antxon eta Trintxerpen 1990-91 ikasturtean jarri zen abian, 1992-93an Oiartzunen eta Pasai Donibanen) bere ibilbidean jasandako eraldaketak, eta gure ustez endekatzeak ezin zuen bere hartan segitu. Bi parametro (haurren adina eta familia tipologia) kontuan hartuz, bakoitzari zegozkion helburuak eta ekintzak desbideratuta zeuden aspalditxoan eta ez ziren inola ere errealak, ez baitziren lorgarri.

- Familia euskalduntzea zen helburua, familia osoa lan-unitatetzat hartuz (ama erdaldunak euskalduntzeko egitasmoa praktikan)
- 0-5 urte arteko haurrak zituzten gurasoei zuzenduriko eskaintza (Oarsoaldean, geroa, 12 urtera arte zabaldu zena).
- Guraso eta haurren arteko oinarrizko komunikazioa euskaraz burutzeko prestatu nahi ziren gurasoak (gurasoak txukun antzean hitz egiten hasterako haurra koskortuta zegoen).
- Bikote mistoak eskuratzeko ahalegin berezia eskatu zen, euskara familia hizkuntza izatea lortzeko aukera handiagoa zutelako (ama erdaldunak biltzen genituen ikastaldeetara).
- Bikote erdaldunen kasuan, hasieran behintzat, bi kideek kanpainen parte hartzea ezinbesteko baldintzatzen jo zen helburua lortu ahal izateko (inoiz lortu ote zen zalan-tza dugu).
- Metodologia aldetik eskola bereziak izango lirateke aipatutako helburua lortzeko prestatuak (azkenerako gaitegi bereziko euskalduntze eskola arrunta bihurtuta zeuden).
- Eskolak euskaltegian eman beharrean, ikastetxean eta haurra eskolan zen bitartean ematea zen helburua (euskaltegietan eta guraso jendea talde arruntetan txertatuta ari ginen kasu askotan).

2002an Oarsoaldea eskualdeko hiru eragile multzo elkar eraginean eta elkarlanean jarri genituen familia bidezko euskararen jarraipena bermatzeko plan berria egiteko asmoz edo horretarako oinarri berriak jartzeko asmoz.

Horrexegatik, Erreterria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiako udaletako euskara teknikariek lau tailer egin genituen eskualdeko ikastetxe, euskara elkarte eta euskaltegiekin, AHIZEren teknikarien gidaritzapean. AMIA egin, helburuak zehaztu, ekintzak (eta bakoitza zein eragileri legokiokkeen) definitu eta 2003-04ko eskaintza diseinatzeko. Ordurako, eskualdean garatzen ziren egitasmoen artean, lehentasuneko lekua emana genion familia bidezko euskararen jarraipenaren gaiari.

- Hizkuntzaren transmisioa bermatzeko.
- Erabileran eragiten duten faktore nagusi batzuetan duen garrantziagatik (erraztasuna, hizkuntzarekiko lotura afektiboa...).

Lehenengo hiru tailerretatik marko edo jokaleku berria atera genuen gutxi gora-behera. Helburuek lorgarri eta familia tipologia bakoitzari egokituak izan behar zutela atera zen ondorio nagusien artean. Helburu horiek lortzeko alor asko ukitzen zituzten ekintzez osaturiko ekintza parrilla bat diseinatu genuen.

### 1.1. Adituekin kontrastea

Behin prozesua amaituta, eta egitasmo berriaren nondik norakoak zehaztuta genituela, hizkuntzaren familia bidezko jarraipenaren gaian aditu batzuekin hitz egin genuen planteamendu berria kontrastatzeko eta euren iritzia jakiteko.

Adituek planteamendua egokituz jo zuten baina hainbat ohar egin zizkiguten:

- Marko egokia da (kokapen egokia) baina alor eta kontu asko ukitzen dituen, osotasunean eta modu eraginkorrean heltzeko/aplikatzeko zaila (baliabide asko eta jarraipen zorrotza eskatuko lituzke).
- Ama euskalduna den bikoteen/familien ia ehuneko ehunak transmititzen die euskara seme-alabei.
- Egungo hezkuntza sistemaren hizkuntza ereduen bilakaerak eta joerak neska ikasle gehiengoak euskara ikasiko duela pentsarazten du.
- Beraz, galera txiki batzuk gerta badaitezke ere, transmisioa, oro har, ziurtatuzat jo dezakegu.
- Hizkuntzaren korpusaren transmisioa haurra jaiotzen denetik bi urte inguruko epean jokatzen den kontua da. Beraz, haurra jaio aurretik atera behar dira kontuak.

### 1.2. Errealitatera, baliabideetara egokitu beharra

Adituek esandakoen haritik, hasierako planteamendua asmo handiegikotzat jo genuen, guztiari heltzeko ahalmenik eta baliabide nahikorik ez genuela izango ikusi genuen eta gainera puntu batzuek lehentasuna zutela. Hala beraz, indarrak eta egitasmoa bikote hizkuntza gaztelania duten bikote euskaldunetan fokalizatzea erabaki genuen. Bikote hizkuntzak familia hizkuntzan duen eragina eta honek haurren geroko euskaldun tipologian eta erabilera mailan duena kontuan hartuz, bikote tipologia horri eskaintza berria egitea erabaki genuen, hizkuntza ohiturak aldatzen laguntze aldera. **Bikote euskaldunek osaturiko familien familia-hizkuntza euskara izatea** helburu lorgarriagotzat genuen, orduan behintzat.

Gurasoentzako eskaintza berria diseinatu genuen helburuak argi azalduta eta igurikapen errealak planteatuz; bikote euskaldunei hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko tailerrak eskaintzen hasi ginen (tailerren osagarri, ipuin, jolas eta kantu tailerrak ere prestatu genituen). Guraso erdaldunentzat, berriaz, euskara ikasteko eskolak (haurrak joaten direneko ikastetxean bertan) eskaintzen jarraitu genuen.

Egitasmoa gauzatzeko lan eta arduren banaketa egina genuen: Udalek komunikazio kanpaina orokorra eta koordinazioa hartu zituzten bere gain. Ikastetxeek irakasleen bidez gurasoen sentsibilizazioa,

informazioa eta atzipena edo matrikulazioa. Euskara elkarteek ekintza osagarrien ardura (kantu, jolas eta ipuin ikastaroa, irteerak eta honelakoak). Azkenik, euskaltegiek eskolen edo ikastaroen ardura hartu zuten, bai ordura arteko eskolen modukoena, baita bikoteen hizkuntza ohiturak aldatzeko proposatutako berriarena ere.

## 2. Eskaintza berriak

### 2.1. Lehenengo eskaintza berria

2003-04 ikasturtearen hasieran, urrian, matrikulazio kanpaina gure ustez indartsua egin genuen: ikas-tetxeak, irakasleak, gurasoak, prentsa, *Gurean* euskararen berripapera, kalean txartelak, txotxongilo emanaldi bereziak, haur jolasak, globoak, eranskailuak eta abar egin eta erabili genituen, baina bikote euskaldunen aldetik harrera eskasa sumatu genuen. Ez zen talderik (4 bikote behar ziren) sortzea lortzen. Guraso erdaldunen kasuan, aldiz, uste dugu kanpainak eragina izan zuela, eta egun ere, oraindik, euskaldunengana iritsi nahi horretan, publiko horrengana iristen garela, izan ere, aspaldiko boladako guraso-talde kopuru handiena erakarri genuen ikasturte hartan. Bikote euskaldunei zegokienez, berriz, zailtasun objektibo batzuk zeudela ohartuta geunden:

- Bikotean erdaraz aritzen direla onartzea
- Bikotea astean bitan leku batean elkartzeko ezintasuna.
- Mezua eurekin ez doaneko ustea; euskaldunak dira, seme-alabak D eremuan, haurrei euskaraz egiten diete beti, euskaltzale amorratuak dira, euskara transmititu, transmititu dute...



## 2.2. Bigarren eskaintza berria

2004-05 ikasturteko eskaintza diseinatzeko ordua ailegatu zenean euskaltegiekin, ikastetxeekin eta euskara elkarteekin aldaketa batzuk egin genizkion aurreko urteko eskaintzari:

Batetik, kantu, jolas eta ipuin ikastaroan izena emateko ez zen beharrezkoa bikote tailerreko partaide izatea, ez eta bi kideek izena ematea ere.

Bestetik, bikote tailerra aurreko urteko formatuan ere eskaini arren, ikasturte hartan kantu, jolas eta ipuin tailerrean izena ematen zuten gurasoekin (bikote nahiz banako, baina gehienak amak izango zirela jakinda) hizkuntza ohiturak aldatzeko teknika batzuek ikasteko ordu batzuk txertatzeko saiakera edo azterketa egitea planteatu genuen tailerrak martxan jartzen zirenean.

Azkenik, beste eskaintza berritzaile gisa euskaltegian zebiltzan eta bikote euskalduna zuten ikasleak detektatu eta haiei ere hizkuntza ohiturak aldatzeko teknikak irakasteko ordu batzuk txertatzea eskaini genien, euren bikotekidea hamabostean behin klasera eramanez eta.

Kontua da bide hark ere ez zuela funtzionatu. Euskaltegiarentzat antolaketa arazoak sortzen zituelako besteak beste. Oartzunen kantu, jolas eta ipuinetarako talde bat sortu zen eta AHIZEko teknikariek gauza batzuk landu zituzten hitzaldi eta solasaldi formatuan.

## 3. Sentiberatzea eta komunikatzea

Hausnarketa askoren eta buelta askoren ondotik, sentsibilizazioaren beharra zegoela ondorioztatu genuen. Euskara zerbitzuen gainerako lan-alorretan ere egiten ari ginen komunikazio beharren diagnostikoak sentsibilizazioa iraunkor egin eta komunikazioa hobetzeko beharra azaleratu zituen.

Bikote euskaldunetikiko gure helburua egokitu/apaldu egin behar izan genuen; hizkuntza ohiturak aldatzea bilatzetik **euren hizkuntza jokabideaz eta honen ondorioez ohartaraztera**. Bikotean eta helduen artean gaztelaniaz aritzeak euskararentzat paradigma ezegokia eskaintzen die haurrei (helduen hizkuntza gaztelania da). Helburua jada ez zen hizkuntza ohiturak epe labur batean aldatzea, bai baikenekien ez genuela lortuko. Ikastaro eta tailerren eskaintza berari eutsiz komunikazioan eta sentiberatzean jarri genituen indarrak eta baliabideak.



## Ellos y ellas hacen lo que ven

**¿El euskara es una lengua de niños?**  
 Ez pentsatu horri. Baina, oraindik ez da erabiltzen oso ongi eta oso ongi ez dago, ez dago oso ongi, ez dago oso ongi...

**¿El euskara es una lengua sólo para la escuela?**  
 Ez pentsatu horri. Baina, oraindik ez dago erabiltzen oso ongi eta oso ongi ez dago, ez dago oso ongi, ez dago oso ongi...

**Conclusión:**  
 "El euskara es una lengua seria y sólo sirve para enseñar" ¡BUFFF!

Alarma al 911 de los niños víctimas del euskara. Cuando veamos que los niños hablan euskara en casa, en el parque y en el colegio, que hablan de euskara "serio" y no sólo en la escuela, que hablan en las plazas y en los parques, que hablan en los parques y en los parques, que hablan en los parques y en los parques...

**Situación:**  
 Si euskara euskaratu, además de hablarles a ellos, hacedlo entre vosotros y con otros adultos.

Si tenéis que recurrir a alguien para el cuidado de vuestros hijos procurad que hable en euskara.

Con la escuela no basta, ellos necesitan un euskara serio a su lado en casa, en la calle, en el parque, en sus recreos, en sus actividades, en sus cuentos y juegos, en el deporte...

**Oarsoaldea**  
 eskola berririk gabeko eskola, h.a.  
 eskola berririk gabeko eskola, h.a.

## Haurrek ikusten dutena egiten dute

Etxean euskara ikusi behar dute

### 3.1. Egungo ereduaren hastapena: clownak eta irratia

2005-06an, ikasleak ateratzeko orduan, ikastetxeen atarietan antzezpentxo batzuekin proba egin ondotik, elementu berriak sartu genituen 2006-2007 ikasturte hasierako kanpainan. Berrikuntza nagusietako bat gurasoei mezua modu zuzen eta "lotsagabe" batean helarazten hastea izan zen. Ikasturte hasierako 0-5 urte arteko haurren gelakako bileretan clown saio labur (5-7 minutukoak) batzuk txertatu genituen. Saio horietan, gidoitxo batean barneratuta, gurasoei hainbat mezu helarazten hasi ginen, guraso euskaldunei bereak eta erdaldunei bereak. Clownek hainbat mezu gordin, gurasoen kontraesanak eta jokamoldea azaleratzeko eta antzezteko bide ematen digute inor mindu gabe edo gauzak dramatizatu gabe. Azken hiru urteetan 75 saioen bueltan ibili gara ekimen honekin. Gurasoentzako orientabide eta lekukotza batzuk biltzen dituen DVD bat banatzen diete clownek saio horietan. DVD horren azala edo zorroa, aldi berean, gurasoentzako mezuak (bikoteen hizkuntza tipologiaren arabera sailkatuak) dakartzan esku-orria da. Horiez gain, jaioberrien gurasoentzako "Guraso gara!" gida, gurasoentzako merchandising objektuak, -botako ez duten eta erabilgarri gertatuko den objektu bat banatu izan diegu gurasoei... Objektuak lelo bat izan ohi du inprimaturik eta orritxo bat izan ohi du erantsita gurasoentzako hainbat mezurekin.



Ikasturte honetako aurkikuntza irratia izan zen. Aurrekontu murriztarekin bazen ere, diru apurrak horretara bideratzea hobetsita, gurasoei zuzenduriko irratitarteak edo kuñak emititu genituen Euskadi irratian eta Radio Euskadin. Tarte horietako bat guraso erdaldunei zuzendua zen eta bestea, berriz, bikote euskaldunei zuzendua. Irrati bidezko mezuen balorazio oso baikorra egin genuen eta geroztik urtero erabiltzen dugu hedabide hau, garestitxo gertatu arren.



Publizitate etxe batekin lanean ari gara euren aholkularitza izan dezagun, eta euren irizpide nagusietako bat mezu berari urte batzuetan eutsi beharra izan da. Horiekin batera irudi edo lelo bateratzaile bat erabili beharra ere bai; haurrak gurasoei galdetzen die “Eta zuek, zer?”

### 3.2. “Kontaidazu ipuin bat” ekimena

2008-09 ikasturtean berrikuntza bat erantsi diogu familia bidezko jarraipenaren programari: “Kontaidazu ipuin bat” ekimena. Eskualdeko guraso, aiton-amona eta izeba-osabei ipuin labur bat sortu (edo klasiko bat moldatu) eta guri helarazteko gonbita egin diegu. Ekimenaren oinarriak biltzen dituen bi orrikoa banatu genien clown saioetan eta azaroaren amaierarako 20 ipuin hartu ditugu. Hartutako ipuin horiek aztertu eta egokitasunaren arabera hautaketa egin ondotik, gurasoen artean banatzeko moduko CD txukun bat grabatzeko lanetan ari gara orain.

### 4. “Kuadrillategi” familia bidezko jarraipenean

Kuadrillategi egitasmoa, Oarsoaldean bederen, familia bidezko jarraipenaren barnean kokatua dugu. Gazteekin lan egiteari beharrezko irizten diogu euren artean euskarazko ohiturak sortze aldera, gero bikoteak sortzen direnerako -nahiz eta kontu oso erlatiboa izan- euskarak bikote hizkuntza izateko aukera gehiago izan ditzan.

Familia bidezko jarraipenaren plana zela eta adituekin kontrastea egin genuenetik garbi genuen gazteekin lanketa berezia egin behar genuela euren artean euskarazko hizkuntza ohiturak finkatzeko eta indartzeko. Aisialdi eskaintza berezi honek bilakaera baikorra izan du 2003-04an Pasaian lehenengo aldiz probatu genuenetik. Egun, Pasaian (Antxon eta Donibanen), Lezon eta Oiartzunen 13-15 urte arteko (DBH-2 eta 3) 200 gaztetxo biltzen dira ostiraleroko jardueretan eta bestelako ekintza berezietan.



## 5. Egun, zer?

Egun beraz, Oarsoaldeko gurasoekiko, familiekiko lanketa neurri handi batean sentiberatze lanera bideratua dago (ikastaro eta tailerrak eskaintzen jarraitzen dugun arren, bikote euskaldunak biltzerik ez dugu lortzen. Guraso erdaldunen taldeak erakartzen jarraitzen dugu eta jolas eta kantu tailerrak ere antolatzen ari gara). Udalek euskara teknikarien lan-taldeak, publizitate eta komunikazio etxearekin batera, 2008rako proposatutako lan egitasmoa eta aurrekontua onartu zituzten eta 2009rako ere planteamendu bera onartu dute, emaitzak (oihartzuna eta eragina) neurtzeko bideak jartzeko baldintzarekin eta beharrezkoa izanez gero, neurri zuzentzaileak ezartzekotan.

Hala, 2009an, mezu berari eta lelo bateratzaile berari eutsi bai baina, haurren adinaren arabera, euskarri eta produktu ezberdinak helarazteko irizpidea hartu dugu aintzat. Produktu bera urtero guraso berek jasoz errepikakor gertatzeko arriskua baikenuen honezkerok. Honoko euskarri hauek aurreikusitako ditugu:

- 0-6 urte arteko haurren gurasoei eurek bidalitako ipuinekin grabatutako CDa banatuko diegu apiril amaieran.
- 0-1urte arteko haurren gurasoei haurraren hazkuntzaren aldi bakoitza hizkuntzarekin lotzen duen liburuxka bat banatuko diegu erroldatzeko bulegoetan eta haurtzaindegien bidez urte guztian zehar.
- 1-3 urte arteko haurren gurasoei, hizkuntza tipologiari jarraiki, haurrekin izan beharreko hizkuntza jokabidearen inguruko aholkuak eta orientabideak biltzen dituen DVDa banatuko diegu. DVDaren azala, aldi berean, aholku behinenak azaltzen dituen esku-orri moduko bat da. Euskarri hau ikasturte hasierako gelakako bileretan egiten duten 5-7 minutuko saioan banatuko dute clown batzuek.
- 4-6 urte arteko haurren gurasoei sukaldean jartzeko PVCko ohar-taula edo arbeltxo bat banatuko diegu. Arbeltxo horrek gurasoei zuzenduriko mezu bat izango du beti bistan; "ez ahaztu gurasoen artean euskaraz egin behar duzuela".

Hauetz gain, 3-16 urte arteko ikasleei euskarazko produktuen katalogoa banatuko diegu, jaioberrien gurasoei "Guraso gara!" gida eta irrati-tarteak nahiz clown saioak ere egingo ditugu.

Egitasmo honetarako eta euskara alorreko egitasmo guztietarako adierazle sistema bat lantzen ari gara une honetan. Emaitzak, edo hobeki esateko, gure ekintzen eragina ez dugu urte batetik bestera sumatuko, ohartuta gaude, baina hainbat ekintzaren emaitzak neurtzeak (matrikula kopuruak, erabiltzaile kopuruak, eskaera kopuruak...) eraginkortasunaren inguruko berri eman diezaguke.

Gure komunikazio ekintzen oihartzuna neurtzeko ekintzak egiten ere hasita gaude. 2008ko udazkenean Oarsoaldeko biztanleria osoa hartuz eta lagin bat erabiliz, telefono bidezko inkesta egin zuen AZTIKERek. Aurten eta aurrerantzean ere, bide berari jarraitzeko asmoa dugu xede ditugun gizataldeak azterketa gai hartuz.



Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarriketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena: